

BALOREZKO PROPOSAMENA

Aurrera eramango dugun proiektuaren bidez janaria sobratzen zaionari faltatzen zaionari emango edo eramango diogu. Esan dugun bezala hori da beste enpresa batzuegandik ezberdinduko gaituena. Aplikazio honen bitartez egunero jan ezin duen jendeak jan ahal izango du. Gure aplikazioaren bidez, janaria eramango diogu abisua eman duen pertsonari, motor bat erabiliz (betiere pertsona hori km 1 baino urrunago aurkitzen bada).

Gure proposamenak bi alde izango ditu, alde batetik kuantitatiboa, eta bestetik kualitatiboa. Kuantitatiboa izango da prezioari eta eskaeraren azkartasunari begira. Bestalde kualitatiboa izango da, enpresaren diseinua eta bezeroaren esperientzia.

LEHIAKIDEENGANDIK DESBERDINTZEN

Gaur egun zerbitzu bat eskaintzerakoan oso garrantzitsua da lehiakideengandik desberdintzea. Hauek dira desberdintzen gaituzten puntuak:

Nobedadea: Gure enpresak eskaera eskuetara eramango dizu, doan.

Prestazioak: Gure aplikazioa gero eta gehiago hobetzen saiatuko gara. Era berean, aukera gehiago sartuko ditugu eta eskaeren azkartasuna handitzen gara.

Pertsonalizazioa: Egunaren arabera, janari asko egotekotan aplikazioaren bidez erabaki ahal izango duzu zer janari mota nahi duzun, baina ez beti, bakarrik egun horretan janari aska jaso badugu.

Lana erraztea: Janaria eskaintzeaz aparte janari horren egoeraz ere arduratuko gara bezeroa lasai gera dadin.

Marka: Gure proiektua berria izango da eta marka ere. Bezeroek gure zerbitzua oso ondo baloratuko dute eta horrek merkatuan oso ondo jarriko digu.

Prezioa: DOAN eskainiko dugu janaria, beraz, jendeak arazo barik eskatuko du.

Arriskua murriztea: Gure kasuan nutrizio enpresa batekin batuko gara eta beraiek janariaren egoera konprobatuko dute bezeroei arriskuak murrizteko.

Eskuragarritasuna: Jendeak eskuetan jasoko du janaria (km 1 baino urrunago aurkitzen bada), garraio enpresa batekin batuko garelako janaria bezeroei eramateko. Hori baita jantoki sozialengandik ezberdinduko gaituena.

Erabilerraztasuna: Gure kasuan janaria baino ez dugunez eskainiko bakarrik jan behar izango dute.